

EUSKERAZALEAK

Il onetan ikasturtea amaitzen dogu eta oporraldia daukagu gure Euskera-ikaskintzan be. Eta oporraldia bear-bearrekoa dogu gaur bizi dogun giro onetan.

Ba-dira orregaitiño, oporraldian be euskereari ekin gura dautsoenak eta egia esan onei be errazoia emon bear jake.

Izkuntza ikasteko gauza bi bear dira: Arauak eta gramatika apur bat, au batez be beste izkuntza bateko gramatika ikasi dabenak edo biotzez baiño buruz geiago jokatzen dabenak.

Eta bigarren gauzea, berba egin.

Egin dagigun uger egiteko arau guztiak ondo ikasten dozuala, baiña uretara ez zarala iñoz be sartzen. Ez dozu uger ikasiko.

Gramatika asko ta luzeak jakin arren, berba egiteari ekin eta ekin egiten ez ba'dautso-zu, ez dozu berbetan ikasiko.

Gauzak oker esango dozuz. Barre be egingo dautzue. Baiña zu ez lotsatu. Zure aurpegia gorrituten ba'da be, zu aurrera. Egin berba eta orrelantxe ikasiko dozu utsik egin barik berba egiten.

Umeak ibiltan ikasi gura dauanean, jaustek izaten ditu. Eta kontua artu bear da mi-ñik egin ez dagian. Baiña, jausi ez daiten, ibilli barik ba'dago ez dau sekula ikasiko ibiltan.

Eta berbeteari ekiteko udea da sasoi egolia.

Al ba'dozu joan baserri batera eta an egin lan eta berba, dana euskaraz. Askok aurre-ratuko zara.

Eta baserria ez ba'da, euskaldun talde bategaz non edo an.

Baiña berba egin.

Geiago oraindiño. Izkuntza norberaren buruko oiturak egiten dabe eta oiturak sortze-ko burua oitu bear da. Orretako, bakarrik zagozenetan be alegindu zure pentsaketak euska-raz izan daitezkan. Or uts batzuk egin arren, ez dautzu iñok barrerik egingo.

A! Eta euskeraz pentsatzen dauana, orixe da euskalduna. Gizonak pentsamentua egi-ten dau baiña bestera be bai, pentsamentuak gizona egiten dau. Euskal izakerea, euskal pen-tsakeratik dator.

GAMIZ'ek

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...